

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia %3,8ko tasaz hazi zen 2007ko hirugarren hiruhilekoan


Sendotu egiten dira, bigarren hiru hilekoz jarraian, euskal ekonomiari eusten dioten milioi bat lanpostuak

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko ekonomiak sortutako BPGak %3,8ko hazkunde erreala izan du 2007ko hirugarren hiruhilekoan, 2006ko aldi beraren aldean. Apaltzea ikusten da euskal ekonomiaren hazkunde-tasa altuetan, baina oraindik ere, erreferentziako ekonomia gehienaren aldean, hazkunde hori handiagoa da, bai urte artekoetan, bai hiruhileko artekoetan.

Euskal AEko ekonomiaren hazkundea hirugarren hiru hileko honetan Espainiako ekonomiak edukitako horixe da (%3,8); AEBetakoaren eta Euro-13 eremukoaren gainetik dago, 1,2 puntuz (%2,6); eta 27-EBkoaren 0,9 puntu gainetik (%2,9).

BPGaren hiru hilekoen arteko hazkundea, urteko bigarrenaren aldean, %0,9 da, hamarren bat gutxiago. Espainiako ekonomian ere hiru hilekoen arteko hazkunde-tasan desazelerazio apala ikusten da, 0,9tik 0,7ra. 27-EB hiru hilekoen arteko %0,8ko tasaz hazi da, eta amerikar ekonomia %1,0. Bi kasuetan aldaketa positiboak daude aurreko hiru hilekoaren aldean, hiru hamarren eta hamarren bat hurrenez-hurren.

BPGda m/p. Urte arteko hazkunde-tasak. (%)



Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak.

Iturria: Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak, Eustat. Estatuko datuak: INE EB-27ko, Euro-13 eremuko eta Estatu Batuetako datuak: EUROSTAT

Sektore eskaintzaileen artean **Lehen Sektoreak** urte arteko hazkunde tasa positiboak ditu (%2,0) baina aurreko hiru hilekoan (%11,5) baino askoz apalagoak. Haren pisu erlatiboa mugatua bada ere, bilakaera horrek badu eraginik hazkunde tasa osoaren astirotzean.

Industri sektoreak urte arteko hazkunde garrantzitsua du, %3,6, aurreko hiru hilekoan baino puntu bat gutxiago bada ere. Ekipoko ondasunen produkzioak eutsi egiten die hazkunde tasa azpimarragarriari, zeinek industri produkzioa maila altuetan mantentzen duten. Hiru hilekoen arteko bilakaera positiboa da, %0,6tik %1,9ra. Atzerriera egindako esportazioetan, astirotzea badago ere, tasa altuak daude, %9,5.

1. taula. BPGda m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko hazkunde-tasak. Euskal AE

	2005	2006	2005		2006				2007		
			III	IV	I	II	III	IV	I	II	III
Nekazaritza eta arrantza	-13,8	-9,8	-28,2	-33,0	-16,5	-7,8	-8,1	-5,3	8,1	11,5	2,0
Industria	4,9	4,9	5,0	5,7	5,6	4,6	4,8	4,6	4,9	4,6	3,6
Eraikuntza	4,7	5,1	4,7	5,2	4,8	5,3	5,1	5,0	4,5	4,4	4,3
Zerbitzuak	3,5	3,8	3,6	3,8	3,7	3,7	3,9	3,8	3,7	3,6	3,6
Produktuen gaineko zerga garbiak	5,0	5,3	5,6	5,4	6,7	6,1	4,9	3,6	4,0	4,2	4,7
BPGda merkatuko preziotan	4,0	4,2	4,1	4,3	4,4	4,3	4,2	4,0	4,1	4,1	3,8

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak.

Iturria: Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak. Eustat

Eraikuntzan daude hazkunde-tasarik altuenak, %4,3, bilakaera hamarren batez geldotu bada ere. Hiru hilekoen arteko terminoetan hazkundea %1,2tik %0,7ra jaisten da. *Eraikinak* azpisektorearen bilakaeragatik astirotu da hazkundea.

Merkatuko zerbitzuek hamarren bat galdu dute urte arteko terminoetan, %3,6; Ez-merkatuko zerbitzuen urte arteko hazkunde tasa %3,6 izan da, eta hiruhilekoen artekoa %1,0. Lehenengoan hiru hamarren gehiago eta bigarrenengan lehengoan jarraituz. Azken emaitza gisa, **Zerbitzuen** multzoak aurreko hiruhilekoko urte arteko tasa berbera du (%3,6) eta hiruhilekoen artekoan jaitsiera dago, %1,3tik %0,7ra.

Eskariaren aldetik, Famili Etxeetako Azken Kontsumoak (Kontsumo Pribatua) BPGaren %60 inguru, atzera egin du lau hamarren, %3,3an geratu delarik. Hiruhilekoen arteko hazkundea aurreko hiru hilekoan baino hamarren bat txikiagoa da.

Administrazioen Azken Kontsumoko Gastuak, kontsumo publikoak, goranzko joerari eutsi dio; urte arteko tasa %4,2 dugu eta hiruhilekoen artekoa %0,7.

Kontsumo pribatuaren eta publikoaren bilakaeren ondorioz **Azken Kontsumoa** %3,4 hazi da; aurrekoan %3,7 izan zelarik, hiruhilekoen artekoari begiratzuz beheranzko joera leuna ikusten da.

Barne-eskariaren beste osagaia, **Kapital Eraketa Gordina (Inbertsioa)** berriz ere izan da Barne-eskariaren agregaturik dinamikoena; urte arteko %5,8ko hazkundea izan du. Bilakaera honek, nabarmentzekoa baina aurreko hiru hilekoan baino neurritsuagoak, bai Eraikuntzaren, bai Ekipoko ondasunen jokaera moteldua erakusten du.

2. taula. BPGda m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko hazkunde-tasak. Euskal AE

	2005	2006	2005		2006				2007		
			III	IV	I	II	III	IV	I	II	III
Etzeguneen azken kontosumoko gastua	4,1	4,2	4,1	4,4	4,3	4,2	4,2	4,0	3,9	3,7	3,3
Herri-administrazioen azken kontosumoko gastua	2,7	2,8	2,0	2,4	2,7	2,9	2,6	2,9	3,0	3,7	4,2
Kapital-eraketa gordina	6,1	6,0	6,0	6,3	6,1	5,9	5,9	6,1	6,6	6,6	5,8
Barne-eskaria	4,4	4,5	4,3	4,7	4,6	4,5	4,5	4,4	4,5	4,5	4,1
Guztizko esportazioak	5,1	7,5	5,3	6,3	8,0	5,4	8,3	8,3	6,5	9,0	6,5
Guztizko inportazioak	5,8	7,7	5,6	6,9	8,1	5,7	8,4	8,5	7,0	9,2	6,7
BPGda merkatuko preziotan	4,0	4,2	4,1	4,3	4,4	4,3	4,2	4,0	4,1	4,1	3,8

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak.

Iturria: Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak. Eustat

Euskal AEko **pertsonal enplegatuak** urte arteko %2,3ko hazkundera izan du, eta euskal ekonomiak sortutako milioi lanpostuak, zehazki 1.016.388, sendotu egiten ditu. Jarduera sektore guztiek lagundu dute lanpostuen sorrera garbian, lehen sektoreak izan ezik.

BPGaren urte arteko bilakaerak **hiru lurreko historikoetan** erakusten du, 2007ko hirugarren hiru hileko honetan, zenbait ezberdintasun aurreko urteko aldi beraren aldean. BPGaren hazkunderik handiena Gipuzkoan izan da, %4,0; Bizkaian %3,9 izan da eta Araban %3,1.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elektronik.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Javier Aramburu

Tlf:+34-945-01 75 99 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp